




# STEE EILAS



## SARE PUBLIKOKO IRAKASLE FUNTZIONARIOEN ERRETIROA 2009



# [www.stee-eilas.org](http://www.stee-eilas.org)

<b>ARABA:</b> Fuente de los Patos, 2, 3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
<b>NAFARROA:</b> Descalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>

## JUBILAZIO PENTSIOAK, MANTENDU BEHARREKO LORPENA

Hiritarrek duten estaldura botere publikoen partetik benetako beharren egoeran eta batez ere gaixotasun, zahartzaro, heriotza, baliaezintasun, zurtasun, langabezi, gose momentutan, gizarteak lortutako giza lorpen handienetakoak dira.

90. hamarkadararte jubilazio pentsioen sisteman konfidantza orokor bat zegoen, baina hortik aurrera bere ahalmena dudan jartzen hasten da. Gaur egungo gizarte segurantza sistemaren ustezko ahulezia kolektiboaren kontzientzian barneratu da eta pentsioen aurkako mehatxuak, jubilazio adina atzeratzeko nahiak eta kotizazio eskaerak handitzeko baita pentsioak osatuko dituen pribatuen aurreikuspen sistemen sustatzea eta finantza publikoen presioa arindu dute.

### **Gure pentsioak arriskuan daude?**

Aldaketa demografiko batzuk aipatzen dira, bizitza luzeraren igoera edo jaiotze tasaren jeitsiera, gaur egungo pentsioen bidegarritasun eza frogatzeko, jakinik demografiak ez duela beti norabide berdinean eboluzionatzen: jaiotze tasak ez dira betirako jeisten (izatez egonkortzen ari dira) eta etorkinen etorrerak esku lan librearen gutxitzea konpentsatzen du neurri batean. Gainera langabezian dauden per-tsonak, bereziki emakumeek eta ekonomia ezkutuan lan egiten dutenek, kolektibo kotizatzaile potentzialak osatzen dituzte merkatu normalizatu batean barneratzen badituzte.

Beste alde batetik egungo sistemak superabit bikaina sortzen du baina beharrezkoa denean ez du erreserba-funtsa hornitzen.

Ez da pentsatu behar aurreikuspen sistema orain arte bezalakoa izango denik beti. Kotizazio portzentaia igoko lukeen gizarte segurantzaren sistemaren erreforma batera errekurritu ahalko litzateke. Aurreikuspen erakunde batera egitera gomendatzen diguten aportazioa, zuzenean gizarte segurantzako kutxara egin ahalko litzateke.

### **Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateak (BGAE-EPSV)**

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateak instituzio pribatuak dira eta haien helburua beraien asoziatuen bizia, errekurtsio eta aktibitatea babestea da. Azken finean, sistema publikoa beteko duten zerbitzuak eman nahi dituzte, normalean jubilazioa, baina ez hori bakarrik.

Krisi ekonomikoak, orain izaten ari garena barne, sistema pribatuentzat txarragoak dira publikoentzat baino zeren eta pribatuak merkatu finantzieroen gora beheretan ahulagoak dira; gainera fondo gordailuen iruzurrezko erabilera gerta daiteke.

Azkenik, ikuspegi etiko batetik aztertu behar dira fondo hoi erabilerak. Gorengo errentabilitatearen bilaketak fondo gordailuen erabilera antisozial batera eramán dezake.

## Elkartasunaren eztabaida

Pentsio publikoek elkartasuna adierazten dute. Kotizatutakoa edozelakoa izanda ere, gutxieneko eta gehieneko batzuk daude jaso beharreko kantitateetan. Badago kotizatutako urteengatik eta eman dituen kantitateengatik ezarritako gutxiengoa baino gutxiago jasoko lukeenik. Berdina gertatzen da errenta altuenekin. Ezarritako tope maximoa baino pentsio altuagoa jasoko lukete.

Gaur egungo sistema publikoaren aurkakoak pentsio pribatuetan bermatzen dira, bakoitzari berea ematen diotelako egindako kotizazioen eta etekinen arabera. Hala eta guztiz ere, gero eta pertsonen sektore handiagoak daude forma eten eta ibiltari gisa lan egitera behartuta daudenak, hau da, hilabete hemen, bi han, hiru langabezian...Kolektibo hauek, merkatu laboralaren ezegonkortasun eta malgutasunaren biktima direnak, ze BGAE-tan babestu daitezke?

## Itzarri

2004az geroztik, EAE-ko irakasleen soldata gordinaren %0,5a Itzarriri zuzentzen zaio, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeari. Eusko Jaurlaritzak kantitate bat ematen du eta langileak gutxitu ezin baina handitu dezakegun beste bat.

Jubilazioan teorikoki jasoko dugun kantitatea, metatutako guztiari, Itzarriren erakunde kudeatzaileak fondo horiekin merkatu finantzieroetan ateratako etekinak batu behar zaizkio.

STEE-EILAS-ek, ezarritako eta uko egin ezin dugun sistema bat salatzen dugu.

## Pentsioen Euskal Sistema Publikoa

Azkenik, gizarte segurantzaren aginpideen lekualdatzea aldarrikatzen dugun gai bat da, norbanako lan harremanen eremuaren defentsaren arian.

Zerbitzu publikoen aldeko borrokak giza-babesen sistemak barnean hartzen ditu. Pertsonen ongi izatea, lan jarduera bukatutakoan eskubide bat da, ez merkantzia bat.

# Klase Pasiboen Erregimena (MUFACE)

## OHIKO JUBILAZIOAREN OINARRIZKO ESKEMA

**Betebeharrak:** Zerbitzu minimoak: 15 urte  
Jubilatzeko adin orokorra: 65 urte

**Pentsioaren kalkuloa:** Estatuko aurrekontuen legeak urtero ebazten du irakasle bakoitzaren oinarri erregulatzailea.

2009ko HARTZEKO ERREGULATZAILEAK			
A1 Taldea	Bigarren Hez.	38235,94€	2731 € hileko
A2 Taldea	Lehen Hez eta LHko Ir Tek	30092,64€	2149,47€ hil.

Oinarri honi portzentu bat ezarri behar zaio kotizatutako urteak kontuan harturik, zenbat kobratuko den jakiteko.

Kotizatutako urteak	Oinarri erregulatzailearen portzentua	Kotizatutako urteak	Oinarri erregulatzailearen portzentua
15	%26,92	26	%67,11
16	%30,57	27	%70,77
17	%34,23	28	%74,42
18	%37,88	29	%78,08
19	%41,54	30	%81,73
20	%45,19	31	%85,38
21	%48,84	32	%89,04
22	%52,50	33	%92,69
23	%56,15	34	%96,35
24	%59,81	35	%100
25	%63,46		

35 urte baino gehiagotan kotizatu baldin bada 35 onenak hartuko dira kontutan, gizarte segurantzako erregimen orokorrean kotizatutakoak barne eta edozein enpresa motatakoak.

Pentsio sistemak limite bat du pentsio altuenean eta bigarren hezkuntzako irakasleek limite hori gainditzen dute.

2009ko GEHIENEZKO PENTSI OAK	
Urteko diru kopurua	34050,94€
Hileko diru kopurua	2432,21€

Urte bat baino gehiago jarraian jardunaldi murriztuan lan egin bada, kotizazioa txikiagoa izango da eta dagokion pentsioa ere bai, bigarren hezkuntzan izan ezik. Hauek gorengo topea gaindituta jardunaldia murrizteko aukera dute jubilazioan galararik ez dutelarik.

Urte sabatikoak jubilaziorako, 5 urte jardunaldi murriztuan %84an bezala kontatzen du.

**Kasu praktikoa:** Eman dezagun pertsona bat jubilazio adinera 37 urte kotizatuta heltzen dela urte sabatiko bat barnean duela, hau da, 5 urtetan gutxiago kotizatzen. Pentsioa kalkulatzeko jardunaldi osoan eginiko 32 urteak aukeratuko genituzke eta 3 urte denbora partzialean.

3 urte %84an = 2,52 urte

2,52 urte + 32 urte %100ean = 34,52 urte kotizatuta

34,52:35 = %98,62857 "haber regulador" deritzonarena

2009an Lehen Hezkuntzan ezarrita:

$0,9862857 \times 30092,64 = 29679,94\text{€}$  kobratzeko urteko, hau da, **29,4€** gutxiago hilean (14 paga).

## BORONDATEZKO JUBILAZIO AURRERATUA

Klase Pasiboen Legeak ezartzen du, erregimen horretan aurkitzen direnak (MUFACE) aurretiaz jubilatu ahal direla bi baldintza betetzen badira:

- 60 urte edo gehiago izatea
- Gutxienez 30 urte kotizatuta izatea

Baldintza hauek beteta pentsioa finkatuko da aurreko taulen arabera eta jubilazio ordainsaria jasotzeko aukera izango da aurreko

### Irakasleen Lan Hitzarmenaren Ordainsaria

**Betebeharra:** Azkenengo 10 urteetan etenik gabe aktibo mantentzea edo plazaren erreserba egoeran izatea.

**Kantitatea:** Hile kopuru konkretu bat da edadearen arabera.

**Epeak:** Urteak bete baino 3 hilabete aurretik eskatu behar da.

Adina	Hileko soldaten kopurua
60	18
61	14
62	10
63	6
64	3

## LOEren BORONDATEZKO JUBILAZIO AURRERATUA

Bide hau karrerako funtzionario diren eta urte kotizatu gehiago nahi dituztenentzat edo MUFACetik kotizatzen ez dutenei zuzenduta dago.

LOE onartu zenetik (2006ko maiatzean) eta bere Bigarren Xedapen Iragankorrek ezartzen duen bezala Gizarte- Segurantzako erregimen orokorrean dauden irakasle funtzionarioek eta Klase Pasiboen sisteman daudenek borondatezko erretiroa hartzeko dituzten aukerak lege honek parekatu ditu. Honi esker Klase Pasiboen erregimenera pasatzeko aukera izatea lortzen da, eta aurreerretiroa eskatzeko orduan honek dakartzan baldintza onuragarrienak bereganatzea.

**STEE-EILAS**en asmoa da aktiboki lana egitea LOEk markaturiko epea (2011) gaindituz behinbetirako luzatu eta mantentzea erretiro mota hau nahiz klase pasiboetako kolektiboarentzat zein Gizarte Segurantzako kolektiboarentzat. Baztertu behar dugu betiko borondatezko aurreerretiroa hartzeko orduan erregimen batean edo bestean egoteak orain arte suposatu duen bereizkeria.

### **Betebeharrak:**

- 60 urte edo gehiago izatea.
- Azken 15 urtez etenik gabe lanean jardun izatea edo lanpostuaren erreserban (urte sabatikoa, adibidez).
- Aurretik aipatutako baldintzak, erretiroa eskatzen den urteko abuztuaren 31 baino lehenago bete behar dira.

**Pentsio Kalkulua:** Pentsioaren kalkulurako adinaren arabera 5 urtera irits daitekeen gehigarria lor daiteke. Adibidez, 63 urterekin, 2 urte gehiago zenbatuko lizkigukete ( $65-63=2$ ). LOEk oparitzen dituen urteak 65 urte osatu arte pentsioaren kalkulorako hartzen dira kontuan baino ez saria lortzeko.

### **LOE-ren erretiroaren ordainsaria**

**Betebeharrak:** Zerbitzu urteak 28 edo gehiago izatea (LOEk oparitutakoak ez dira kontutan hartzen).

**Kantitatea:** Sariaren kopurua EAEn, 65 urterarte lanean jarraituz gero jasoko litzatekeenaren %99ra iristeko adinakoa litzateke.

**Eskaera epea:** Urteko lehen 2 hilabeteetan.



Pentsio sistemak limite bat du pentsio altuenean eta bigarren hezkuntzako irakasleak limite hori gainditzen dute. Hori horrela izanik, jardunaldi murriztuan lan egin edota urte sabatiko bat izan ahalko dute beraien pentsioan efekturik izango ez dutelarik.

2009ko GEHIENEZKO PENTSIOK	
Urteko diru kopurua	34050,94€
Hileko diru kopurua	2432,21€

## AURRETIZKO JUBILAZIOA

Karrerako funtzionario diren pertsonak MUFACeri eska diezaiokete aurretizko borondatezko jubilazioa. Kasu honetan, "LOEren Borondatezko Jubilazio Aurreratua" atalean esandakoa ezarriko da. Hau momentuz posible da 2011ko abuztuaren 31 arte.

Karrerako funtzionarioa ez izanda ere, aurretizko jubilazioa eskatu daiteke 60 urte beteta eta gutxienez 15 urte kotizaturik izanez gero, beti eta 1967ko urtarrilaren 1 baino lehen kotizatuta badago. Kasu honetan, ohizko jubilazioaren baldintzetan kalkulaturako pentsioaren kantitateari (kuadroa) 65 urterarte falta zaizkion urte bakoitzeko %8a kenduko zaio.

Funtzionarioak ez diren kasuetan edota izanda ere LOEren baldintzak betetzen ez dituztenei eta 67az aurretik ere kotizatuta ez badago, 65 urterarte lan egitea besterik ez dago. Hau izugarritzko astakeria da eta funtzionarioarekiko diskriminazioak egoera larriagotzen du.

## ADI!

Jubilazioaren aukera desberdinen ikerketa eta kasu bakoitzerako aukera hobere-nak banan-banan egin behar dira, zeren eta aukeratu beharreko jubilazio formula eta pentsioen kantitatea bakoitzaren lan bizitzaren araberakoa da.

Dossier hau jubilazio garaian funtzionario edo interinoak diren irakasleei dagokie. Orokorrean jubilazioan lan kontratua dutenei ez die eragiten.

Informazio zehatzagoa behar izanez gero (eskaera prozedurak, epeak, etb...) harremanetan jar zaitezke STEE-EILASen edozein egoitzarekin.